

**Berrikuntza eta materialak:
LSR Silikonaren aplikazioak gizakiaren eta animalien
osasunerako**

2017ko maiatzaren 30eko bilera, Baiona-Iparraldeko Ganberan

2016ko ekainetik, Baiona-Iparralde Merkataritza Ganberak **HEALTH LSR** izeneko mugaz bestaldeko programa du abian; programa **INTERREG Poctefa** funtsen bidez finantzatzen da. Proiektu honetan, Leartiker zentro teknologikoarekin batera, SODENA Nafarroako Garapen Agentziak, Université de Pau et des Pays de l'Adour-ek eta Clínica Universidad de Navarra dihardute lanean.

Proiektu honen helburua da aplikazio berriak garatzea, gizakien eta animalien osasunaren sektorerako, LSR Silikonaren propietateetan oinarrituta. Gai honek ezaugarri interesgarriak ditu, zenbait gailu medikorentzat:

- Beroaren kontrako erresistentzia handia, hotzaren kontrako erresistentzia bikaina, malgutasuna, zahartzearen kontrako erresistentzia, propietate hidrofobiko garrantzitsua, transmisio optiko bikaina, gamma izpien eta edonolako kolorazioaren kontrako erresistentzia etab.

Erabilera profesionaletatik abiatuta, proiektu honen bazkideek konpromisoa hartu dute **5 prototipo garatzeko 2016-2019 aldian**.

Horretarako, diseinuko profesionalekin eta enpresa eraldatzaileekin lankidetzan jardun nahi dugu. Eremu horretan, sormeneko goiz batean parte hartzera gonbidatzen zaituztegu:

**2017ko maiatzaren 30a, asteartea, 09:00etatik 12:45era, Baiona-Iparraldeko
Merkataritza Ganberan**

50-51, allées Marines - Bayonne

09:00 – Harrera - Kafea

09:15 – **HEALTH LSR** programaren aurkezpena

09:30 – **LSR Silikonaren propietateen/ezaugarrien** eta gizakien eta animalien osasunaren sektorean dauden aplikazioen aurkezpena

10:15 – Diseinatzaile baten testigantza, LSR berrikuntza bati buruz sektore honetan

10:30 – Atsedenaldia

10:45 – **Sektore medikoko erabilerei eta erabilpenei buruzko lan-taldeak – Trukeak – Sormen-saioak** – Tailer honetan, profesional parte-hartzaileei eskatuko zaie iradokizunak egiteko eta ideiak aurkezteko, lanbide-praktika hobetzeko.

12:00 – **Saioen laburpena** – Goiza lanean eman ondoren, ezarritako harreman-sarea eta proiektuaren segimendua eta antzemandako hobekuntzak aprobetxatu ahalko dituzue, zuon proiektuetarako ekarpen gisa.

12:45 Buffeta

Parte hartzea librea da, baina derrigorrean eman behar da izena:

<https://doodle.com/poll/8rbk7ctq3sag8y9x>

Posta elektronikoa: o.irastorza@bihartean.com